


UPV/EHU

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**IZATEZKO BIKOTEEN ONDAREZKO ONDORIOEN
ERAENTZA JURIDIKOA EUROPAN: 2016/1104
ERREGLAMENDUA**

GRADU AMAIERAKO LANA

Egilea: NAHIA CUEVA MARTÍN

Zuzendaria: IDOIA OTAEGI AIZPURUA

Zuzenbide Gradua

2017/2018 Ikasturtea

AURKIBIDEA

LABURDURAK

I. SARRERA

II. IZATEZKO BIKOTEEN ONDAREZKO ONDORIOEN ERAENTZA JURIDIKOA ESPAINIAN

1. KODE ZIBILEKO 9.2 ETA 9.3 ARTIKULUAK
2. AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARAUKETA

III. IZATEZKO BIKOTEEN ERAENTZA JURIDIKOA EUROPAN: 2016/1104 ERREGLAMENDUA

1. NAZIOARTEKO ESKUDUNTZA JUDIZIALA
 - a) *Lotura duten auzien eskuduntza*
 - b) *Eskuduntza beste kasu batzuetan*
 - c) *Esanbidezko eta isilbidezko menekotasuna*
 - d) *Eskuduntza alternatiboa, subsidiarioa eta “forum necessitatis”*
 - e) *Errekonbentzioak*
 - f) *Litispdentzia eta lotutako demandak*
2. EZARGARRIA DEN LEGEA
 - a) *Ezargarria den legearen aukeraketa*
 - b) *Ezargarria den legea alderdien aukeraketarik egon ezean*
 - c) *Ezargarria den legearen ezarpen-eremu materiala*
 - d) *Polizia legeak eta ordena publikoa*
 - e) *Berbidalpenaren bazterketa*
 - f) *Lege-gatazkak: eskualde-artekoak eta pertsonalak*
3. EBAZPENEN AINTZATESPENA ETA BETEARAZPENA
 - a) *Ebazpenak*
 - b) *Agiri publikoak eta transakzio judizialak*

IV. KONKLUSIOAK

BIBLIOGRAFIA

LABURDURAK

AG: Auzitegi Gorena

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa

EB: Europar Batasuna

EK: Espainiar Konstituzioa

EL: Ezargarri den Legea

KA: Konstituzio Auzitegia

KZ: Kode Zibila

NEJ: Nazioarteko Eskuduntza Judiziala

NZPr: Nazioarteko Zuzenbide Pribatua

IZATEZKO BIKOTEEN ONDAREZKO ONDORIOEN ERAENTZA

JURIDIKOA EUROPAN: 2016/1104 ERREGLAMENDUA

I. SARRERA

Lan honen helburua, izatezko bikoteen eraentza ekonomikoa aztertzea da. Horretarako oinarri hartuko dugun araudia, batez ere, hurrengoa izango da: Europar Batasunaren (EB) 2016/1104 Erreklamendua, 2016ko ekainaren 24koa, izatezko bikoteen ondarezko ondorioei buruzkoa, eskuduntzaren, ezargarri den legearen eta ebazpenen aintzatespen eta betearazpenaren eremuetan kooperazio indartua ezartzen duena¹.

Gaur egun, geroz eta ugariagoak dira ezkontzatik at bizikidetzaren harreman bat duten bikoteak, eta geroz eta ohikoagoak ere, nazioarteko elementuak dituzten bikoteak.

Izatezko bikoteek errealitate konplexu bat osatzen dute, izan ere, Estatu batzuetan ordena publikoaren aurkakoa kontsideratzen da ezkontzatik kanpoko bizikidetzaren; beste batzuetan, ezkontzaren parekoa den instituzio gisa definitzen da; eta gehienetan, nahiz eta ezkontzatik kanpoko bizikidetzaren zilegia den, ezin daiteke ezkontzaren pareko gisa definitu².

Beraz, oso zaila da Europar Batasuneko Estatu kide guztientzat homoginoa den araudi bat egitea, izatezko bikoteei dagokionean. Hala ere, azken urteotan EB-ak komunitarizazio prozesu bat eraman du aurrera, horren emaitza 2016/1104 Erreklamendua eta 2016/1103 Erreklamendua³, 2016ko ekainaren 24koa, ezkontzaren eraentza ekonomikoari buruzkoa, eskuduntzaren, ezargarri den legearen eta ebazpenen aintzatespen eta betearazpenaren eremuetan kooperazio indartua ezartzen duena izan direlarik.

¹ *Reglamento (UE) 2016/1104 del Consejo, de 24 de junio de 2016, por el que se establece una cooperación reforzada en el ámbito de la competencia, la ley aplicable, el reconocimiento y la ejecución de resoluciones en materia de efectos patrimoniales de las uniones registradas (DO L núm 183 de 8.7.2016, pág. 30/56).*

² J.C. Fernández Rozas, S. Sánchez Lorenzo, “*Derecho Internacional Privado*”, Cizur Menor (Navarra), Civitas, 2016, pág. 475

³ *DO L núm 183 de 8.7.2016, pág. 1/29*

Gaur egun, Europa mailan, 2016/1104 Erreklamendua oraindik ezargarria ez denez⁴, ez dago izatezko bikoteei, ezta ezkontzaren eraentza ekonomikoari aplikagarri zaion araurik ere. Izan ere, izatezko bikoteen zein ezkonduetako bikoteen eraketa eta antolakuntza arautzea Estatu kideen eskuduntza da.

Espainia mailan ere, ez dago Estatu osoarentzat ezargarria den araurik izatezko bikoteen gaiaren inguruan. Hala ere, zenbait Autonomia Erkidegok izatezko bikoteei buruzko arauak egin dituzte.

Arestian aipatu denez, lan honetan, izatezko bikoteen eraentza ekonomikoa izango da aztergai. Horretarako, lehendabizi izatezko bikoteek espainiar Estatuan duten eraentza juridikoa aztertuko dugu. Ondoren, 2016/1104 Erreklamenduaren azterketa eramango da aurrera, atentzio berezia jarriz ezargarria den legearen eremuari.

II. IZATEZKO BIKOTEEN ONDAREZKO ONDORIOEN ERAENTZA JURIDIKOA ESPAINIAN

Espainian, ez dago Estatu mailan izatezko bikoteei aplikagarri zaien araurik. Hau da, ez da existitzen Estatu osoarentzat homogeneouskoa den araudirik. Kode Zibilak (KZ) soilik bikote ezkonduen eraentza juridikoa arautzen du. Hala ere, zenbait Autonomia Erkidegok, izatezko bikoteen instituzioa arautu dute, batzuk maila handiagoan, eta beste batzuk txikiagoan. Jarraian, KZ-ak ezkontza eraentza ekonomikoari esleitzen dizkion xedapenak eta Autonomia Erkidegoek izatezko bikoteen inguruan eman dituzten araudiak jorratuko dira.

⁴ Ezargarria izango da 2019ko urtarrilaren 29az geroztik. Hala ere, 63 eta 64. artikulak ezgarriak dira 2018ko apirilaren 29tik aurrera, eta 65, 66 eta 67. artikulak, aldiz, 2016ko uztailaren 29tik aurrera dira ezgarriak.

1. KODE ZIBILEKO 9.2 ETA 9.3 ARTIKULUAK

Espaniar Kode Zibilak, nazioarteko Zuzenbide pribatuko (NZPr) arauak aurreikusten ditu bere laugarren kapituluan, *“Normas de Derecho internacional privado”* izenburupean. Bertan, 9.2 artikuluan⁵, ezkontzaren ondorioei aplikagarri zaien legea zehazteko lotura puntuak aurreikusten dira.

Lehendabiziko lotura puntua, ezkontideen lege pertsonal amankomuna da, hau da, ezkontideen naziokotasunaren legea. Halakorik ez balego, alegia, ezkontideek naziokotasun ezberdina dutelako, aukera ematen zaie ezkontzaren ondorioak arautuko dituen legea hautatzeko. Noski, hautaketa hau ezin da askea izan, bi aukera esleitzen zaizkielarik: bietako edozeinen lege pertsonala edo bietako edozeinen ohiko egoitzaren legea. Legea aukeratu ahal izateko, ezkontideek haien adostasuna adierazi behar dute agiri publikoan, ezkontza ospatu baino lehen. Ezkontza ospatu baino lehen akordiorik ez balego, aplikagarria izango da ezkondu eta berehalako ohiko egoitza amankomunaren legea, eta halakorik ez badago, ezkontza ospatu den lurraldeko legea.

Ezkontza itunei dagokienez, KZ-ko 9.3 artikulua hurrengoa xedatzen du: *“Los pactos o capitulaciones por los que se estipule, modifique o sustituya el régimen económico del matrimonio serán válidos cuando sean conformes bien a la ley que rija los efectos del matrimonio, bien a la ley de la nacionalidad o de la residencia habitual de cualquiera de las partes al tiempo del otorgamiento”*.

Beraz, ezkontza-itunak baliozkoak izateko hiru aukera ezberdin aurreikusten ditu espainiar legegileak. Ezkontideek hiru lege horien artean hautatu dezakete haien eraentza ekonomikoa arautzeko.

Argi dago Kode Zibilak xedapen hauetan ez diela erreferentziarik egiten izatezko bikoteei. Honen harira, aipagarria da KZ-ko 4.1 artikulua: *“Procederá la aplicación analógica de las normas cuando éstas no contemplen un supuesto específico, pero regulen otro semejante entre los que se aprecie identidad de razón”*. Artikulu hau

⁵ KZ-ko 9.2 artikulua hurrengoa agintzen du: *“Los efectos del matrimonio se regirán por la ley personal común de los cónyuges al tiempo de contraerlo; en defecto de esta ley, por la ley personal o de la residencia habitual de cualquiera de ellos, elegida por ambos en documento auténtico otorgado antes de la celebración del matrimonio; a falta de esta elección, por la ley de la residencia habitual común inmediatamente posterior a la celebración, y, a falta de dicha residencia, por la del lugar de celebración del matrimonio. La nulidad, la separación y el divorcio se regirán por la ley que determina el artículo 107”*.

irakurrita pentsa dezakegu logikoa dela ezkontzari buruzko arauak izatezko bikoteei aplikatzea. Izan ere, izatezko bikotearen instituzioa da araututa ez dagoen supostu zehatza, eta ezkontza, bere antza duen instituzioa da, araututa dagoena. Artikuluak “*identidad de razón*” esamoldea erabiltzen du, eta hor dago gakoa.

Espainiar jurisprudentziak ezkontzaren araubidea izatezko bikoteei analogiaz aplikatzea baztertzen du, Auzitegi Gorenak (AG), 1992ko urriaren 21eko 8589 zenbakia duen epaian dioenez, izatezko bikoteak eta ezkontutako bikoteak ez direlako egoera baliokideak⁶. Epai hau bere oinarria du Konstituzio Auzitegiak (KA) 1990. urtean eman zuten beste epai batean, bertan hurrengoa xedatzen zuelarik: “*Es claro que en la Constitución española de 1978 el matrimonio y la convivencia extramatrimonial no son realidades equivalentes. El matrimonio es una institución social garantizada por la Constitución, y el derecho del hombre y de la mujer a contraerlo es un derecho constitucional (art. 32.1), cuyo régimen jurídico corresponde a la Ley por mandato constitucional (art. 32.2). Nada de ello ocurre con la unión de hecho more uxorio, que ni es una institución jurídicamente garantizada ni hay un derecho constitucional expreso a su establecimiento. El vínculo matrimonial genera ope legis en la mujer y el marido una pluralidad de derechos y deberes que no se produce de modo jurídicamente necesario entre el hombre y la mujer que mantienen una unidad de convivencia estable no basada en el matrimonio*”⁷.

Beraz, argi dago jurisprudentziaren aburuz ezkontza eta izatezko bikoteak ez direla baliokideak, ezkontza Espainiar Konstituzioan (EK) aldarrikatzen eta bermatzen den instituzioa delako, eta izatezko bikotea, aldiz, ez da konstituzionalki bermatzen den instituzio bat, beraz, ezin dira maila berean jarri. Hori dela eta, eragotzi egiten da ezkontzaren araubidearen aplikazio analogikoa.

⁶ N. Alvarez Lata, “Las parejas de hecho: perspectiva jurisprudencial”, *Derecho Privado y Constitución*, núm. 12, 1998, pág. 17-18.

⁷ *STC 184/1990, del 15 de noviembre (BOE núm. 289, del 3 de diciembre de 1990).*

2. AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARAUKETA

Nahiz eta Kode Zibilak ez dituen izatezko bikoteak arautzen, zenbait Autonomia Erkidegok bikote hauen eraentza juridikoa arautu dute. Autonomia Erkidegoek egindako legeak aztertu baino lehen, komenigarria da Zuzenbide Zibila arautzeko eskuduntzari aipamena egitea.

Espainiar Konstituzioak, bere 149.1 artikuluan, Estatuaren eskuduntza eskusiboak zerrendatzen ditu. Xedapen honetako zortzigarren atalak, hurrengoa aurreikusten du: *“1. El Estado tiene competencia exclusiva sobre las siguientes materias: [...] 8.ª Legislación civil, sin perjuicio de la conservación, modificación y desarrollo por las Comunidades Autónomas de los derechos civiles, forales o especiales, allí donde existan”*.

Beraz, Zuzenbide Zibila Estatuaren eskuduntza eskusiboa da. Hala ere, Zuzenbide Zibila arautzeko eskuduntza bereganatu zezaketen, EK indarrean sartu zen momentuan Zuzenbide Zibil propioak zituzten Autonomia Erkidegoak, haien eskubide zibil, foral edo bereziak mantendu, aldatu edota garatzeko asmoz. EK-ko xedapen honetan datza, beraz, Autonomia Erkidegoek izatezko bikoteak arautzeko eskuduntzaren justifikazioa. Aldiz, Konstituzioa indarrean sartu zen unean Zuzenbide Zibil propiorik ez zuten Autonomia Erkidegoek, ez dute gai hau arautzeko eskuduntzarik izango.

Zuzenbide Zibil propioak ez dituzten zenbait Autonomia Erkidegok ere, izatezko bikoteei buruzko arauketa egin dute, ekimen legegilea haien Estatuetan bereganatutako beste eskuduntza batzuetan oinarrituz, hala nola, gizarte-laguntza eta ongizatean, edo orientazio familiarrean⁸.

Eskuduntzaren eremua aldera batera utziz, Espainiar Estatuko Autonomia Erkidego gehienek arautu dituzte izatezko bikoteak. Zehazki, 12 Autonomia Erkidegok egin dituzte izatezko bikoteen eraentza juridikoari buruzko lege autonomikoak: Katalunia, Aragoa, Nafarroa, Madril, Balentzia, Balear Irlak, Asturias, Andaluzia, Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE), Kanariar Irlak, Extremadura eta Kantabria⁹.

⁸ C. Mesa Marrero, *Las Uniones de Hecho: Analisis de las Relaciones Económicas y sus Efectos*, Cizur Menor (Navarra), Aranzadi, 2006, pág. 77-81.

⁹ *Ley 25/2010 de 29 de Julio, del Libro II. del Código Civil de Cataluña, relativo a la persona y a la familia (DOGC núm. 5686 de 5 de Agosto de 2010 / BOE núm. 203 de 21 de Agosto de 2010); Decreto*

Orokorrean, lege guzti hauek gauza bera esaten dute izatezko bikoteen ondarezko ondorioei dagokienez. Bikotearen arteko harremanak arautzean, lege hauek aurreikusten dute, bikotekideek itun bidez adostu ditzaketela zeintzuk izango diren haien harreman ekonomikoak arautuko dituzten xedapenak, bai bizikidetzak irauten duen bitartean, eta baita hura amaitzean ere; hau da, likidaziorako arauak ere ituntzeko aukera ematen zaie.

Esan bezala, orokorrean lege guztiek eskema berdina jarraitzen dute. Hala ere, batzuk ezberdintasunak jasotzen dituzte. Jarraian, Kataluniako eta EAE-ko legeak aztertuko ditugu.

Kataluniako legea, “*Ley 10/1998, de 15 de julio, de Uniones Estables de Pareja*”¹⁰ izan zen izatezko bikoteak arautu zituen lehen lege autonomikoa. Honen arabera, bikotekideek ahoz, idatzi pribatu edo publiko bidez itundu zitzaizketen haien arteko harreman pertsonal nahiz ondarezkoen arauketa. Berezitasun gisa, aipatzekoa da lege honek kapitulu ezberdinetan arautzen zituela bikote heterosexual eta homosexualak, nahiz eta arauketa berdina eman.

Gaur egun, aipaturiko 10/1998 Legea ez dago indarrean. Horren ordez, Kataluniako Kode Zibileko Bigarren Liburuan jasotzen da izatezko bikoteei buruzko eraentza. Bertan, 234-3 artikuluan arautzen da bikotearen erregimena, bizikidetzak irauten duen bitartean: “*1. Las relaciones de la pareja estable se regulan exclusivamente por los pactos de los convivientes, mientras dura la convivencia. [...] 3. Los convivientes en pareja estable pueden adquirir conjuntamente bienes con pacto de supervivencia. En*

Legislativo 1/2011 de 22 de Marzo, del Gobierno de Aragón, por el que se aprueba, con el título de “Código del Derecho Foral de Aragón”, el Texto Refundido de las Leyes Civiles Aragonesas (BOA núm. 63 de 29 de Marzo de 2011); Ley Foral 6/2000, de 3 de julio, para la igualdad jurídica de las parejas estables (BON núm. 82 de 07 de Julio de 2000 y BOE núm. 214 de 06 de Septiembre de 2000); Ley 11/2001, de 19 de diciembre, de Uniones de Hecho de la Comunidad de Madrid (BOCM núm. 2 de 03 de Enero de 2002 y BOE núm. 55 de 05 de Marzo de 2002); Ley 5/2012, de 15 de octubre, de la Generalitat, de Uniones de Hecho Formalizadas de la Comunitat Valenciana (DOCV núm. 6884 de 18 de Octubre de 2012 y BOE núm. 268 de 07 de Noviembre de 2012); Ley 18/2001, de 19 de diciembre, de parejas estables (BOIB núm. 156 de 29 de Diciembre de 2001 y BOE núm. 14 de 16 de Enero de 2002); Ley del Principado de Asturias 4/2002, de 23 de mayo, de Parejas Estables (BOPA núm. 125 de 31 de Mayo de 2002 y BOE núm. 157 de 02 de Julio de 2002); Ley 5/2002, de 16 de diciembre, de Parejas de Hecho (BOJA núm. 153 de 28 de Diciembre de 2002 y BOE núm. 11 de 13 de Enero de 2003); Ley 2/2003, de 7 de mayo, reguladora de las parejas de hecho (BOPV núm. 100 de 23 de Mayo de 2003 y BOE núm. 284 de 25 de Noviembre de 2011); Ley 5/2003, de 6 de marzo, para la regulación de las parejas de hecho en la Comunidad Autónoma de Canarias (BOIC núm. 54 de 19 de Marzo de 2003 y BOE núm. 89 de 14 de Abril de 2003); Ley 5/2003, de 20 de marzo, de Parejas de Hecho de la Comunidad Autónoma de Extremadura (DOE núm. 42 de 08 de Abril de 2003 y BOE núm. 111 de 09 de Mayo de 2003); Ley de Cantabria 1/2005, de 16 de mayo, de Parejas de Hecho de la Comunidad Autónoma de Cantabria (BOC núm. 98 de 24 de Mayo de 2005 y BOE núm. 135 de 07 de Junio de 2005).

¹⁰ DOGC núm. 2687, de 23 de Julio de 1998 y BOE núm. 198, de 19 de Agosto de 1998.

este caso, se aplican los artículos 231-15 a 231-18, en materia de adquisiciones onerosas con pacto de supervivencia”.

Lege honen berezitasuna da, izatezko bikotekideek aukera dutela ondasun bat eskuratzeko, biziraupen itun baten menpe. Ondasunak biziraupen itun bidez eskuratzeko aukera, orokorrean, ezkontideei eskaintzen zaien aukera da. Hala izanik, ezkontideek ondasun bat eskuratzen dute, biak direlarik titularrak, eta ezkontideetako bat hiltzen denean, bizirik dirauenak ondasunaren titulartasun osoa jasoko du. Hala ere, Kataluniar lege honek aukera hau eskaintzen die izatezko bikotekideei, gai zehatz honetan ezkontideei ezargarria zaien arauketa aplikatuko zaielarik.

Euskal Autonomia Erkidegoko 2/2003 Legeak ere, nahiz eta gainontzekoen eskema bera jarraitu izatezko bikoteen ondarezko ondorioei dagokienean, berezitasun bat badu. Lege honen 5. artikuluan arautzen dira izatezko bikoteen ondarezko ondorioak *“Regulación de la relación y régimen económico-patrimonial”* izenburupean. Legearen jatorrizko bertsioan, artikulua honek soilik bi atal zituen. Lehenak, arestian aipatu denez, gainontzeko legeek ezarritako eskema bera jarraitzen du, hau da, bikotekideek itun bidez arautuko dituzte haien arteko harreman pertsonalak eta ondarezko harremanak.

2015. urtean, EAE-ko Legebiltzarrak lege berri bat egin zuen, Euskal Zuzenbide Zibileko 5/2015 Legea¹¹, alegia. Azken lege honen bigarren xedapen gehigarriaren bigarren atalak, 2/2003 Legearen 5. artikuluari hirugarren atal bat gehitu zion. Hirugarren atal horretan agintzen denez, bikotekideen arteko itun espresurik egon ezean, izatezko bikoteen eraentza ekonomikoa ondasunen banaketa izango da¹².

Gure aburuz, euskal legegileak guztiz asmatu du hirugarren atal honekin, eraentza subsidiario gisa ondasunen banaketa ezarri. Izan ere, izatezko bikoteak osatzen dituzten pertsonak, halako erabakia hartzen dute, orokorrean, ez dutelako ezkondu nahi. Hala izanik, zentzugabea izango litzateke ezkonduetako bikoteen eraentza bera ezartzea. Hau da, bikote batek ez badu ezkondu nahi, ulertzen da ez dituela jasan nahi ezkonduetako bikote baten ondorio berdinak, eta beraz, egokia ikusten dugu euskal legegileak harturiko erabakia.

¹¹ Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco (BOPV núm. 124 de 03 de Julio de 2015 y BOE núm. 176 de 24 de Julio de 2015)

¹² 2/2003 Legeko 5.3 art: *“A falta de pacto expreso el régimen económico-patrimonial de las parejas de hecho reguladas en ésta ley será el de separación de bienes establecido en el Código Civil.”*

Autonomia Erkidegoen arauketaren atalari amaiera emateko, Galiziako egoera berezia aztertuko dugu. Galiziako Autonomia Erkidegoak ez du izatezko bikoteak arautzen dituen lege berezirik eratu. Hala ere, aipagarria da bere 2/2006 Legea, ekaineko 14koa, Galiziako Zuzenbide Zibilar buruzkoa¹³. Lege honetako IX. Tituluan arautzen da ezkontzaren eraentza ekonomikoa. Bertan adierazten denez, ezkontzaren eraentza ekonomikoa izango da ezkontideek ezkontza-itunen bidez zehazten dutena, eta honen ezean, irabazpidezko sistema. Xedapen honek ez dio ezer berririk gehitzen ezkontza eraentza ekonomikoari. Lege honen berezitasuna Hirugarren Xedapen Gehigarrian aurki dezakegu:

“1. A los efectos de la aplicación de la presente ley, se equiparan al matrimonio las relaciones maritales mantenidas con intención o vocación de permanencia, con lo que se extienden a los miembros de la pareja los derechos y las obligaciones que la presente ley reconoce a los cónyuges.

2. Tendrán la condición de parejas de hecho las uniones de dos personas mayores de edad, capaces, que convivan con la intención o vocación de permanencia en una relación de afectividad análoga a la conyugal y que la inscriban en el Registro de Parejas de Hecho de Galicia, expresando su voluntad de equiparar sus efectos a los del matrimonio. [...]

3. Los miembros de la unión de hecho podrán establecer válidamente en escritura pública los pactos que estimen convenientes para regir sus relaciones económicas durante la convivencia y para liquidarlas tras su extinción, siempre que no sean contrarios a las leyes, limitativos de la igualdad de derechos que corresponden a cada conviviente o gravemente perjudiciales para cada uno de los mismos”.

Galiziako 2/2006 Legeak maila berean jartzen ditu izatezko bikotea eta ezkontutako bikotea. Lege honek ezartzen duen baliokidetasunaren konstituzionaltasuna zalantzan jartzen da. Izan ere, jurisprudentziak behin eta berriz adierazi du ezkontzarik gabe ezin daitekeela ezkontza eraentza ekonomikorik egon; eta, izatezko bikotekideek haien harremana antolatzean ezkontzaren figura baztertu badute, bazterketaren ondorio zuzena da eraentza ekonomikoaren bazterketa¹⁴.

¹³ DOG núm. 124, de 29 de Junio de 2006 y BOE núm. 191, de 11 de Agosto de 2006.

¹⁴ A. Sánchez-Rubio García, *Disolución y liquidación de los regímenes matrimoniales. Sociedad de gananciales y regímenes forales de comunidad*, Madrid, Reus, 2016, pág. 18

Era berean, aipatu beharra dago Konstituzio Auzitegiak tramitera onartu duela Hirugarren Xedapen Gehigarriari buruzko konstituzionaltasun ezaren auzia, EK 149.1.8 artikulua aurkakoa izan daitekeelako.

III. IZATEZKO BIKOTEEN ERAENTZA JURIDIKOA EUROPAN: 2016/1104 ERREGLAMENDUA

Sarreran aipatu den bezala, lan honen helburua izatezko bikoteen eraentza ekonomikoa aztertzea da, horretarako 2016/1104 Erreklamenduaren azterketa eginez. Baina, honen azterketa aurrera eraman baino lehen, beharrezkoa da Europar Batasunak Erreklamendu hau egitera eraman duen prozesua azaltzea.

EB-ren helburuetako bat, pertsonen zirkulazio askea bermatzen duen askatasun, segurtasun eta justizia eremu bat mantentzea eta garatzea da. Horretarako beharrezkoa da nazioarteko ondorioak dituzten auzi zibiletan neurriak hartzea. Europar Kontseiluak, Bruselan bildua 2004ko azaroaren 4 eta 5ean, “*El Programa de la Haya: consolidación de la libertad, la seguridad y la justicia en la Unión Europea*”¹⁵ izeneko programa eratu zuen. Bertan, Kontseiluak Batzordeari ezkontza eraentza ekonomikoen eremuan dauden lege-gatazkei buruzko Liburu Berde bat aurkezteko eskatu zion (*Libro Verde sobre el conflicto de leyes en materia de régimen matrimonial, con especial referencia a las cuestiones de competencia jurisdiccional y reconocimiento mutuo*¹⁶). Era berean, eremu honetan tresna bat eratzeko beharra azpimarratu zuen programak¹⁷.

Liburu Berdeak, ezkontza eraentzaren eremuan dauden lege-gatazkek aztertzeaz gain, ezkondata ez dauden bikoteek nazioarteko Zuzenbide pribatuan aurkitzen dituzten arazoak aztertu zituen¹⁸.

Liburu Berdea egin eta lau urteren buruan, 2010eko urriaren 27an, EB-ko Batzordeak “*Informe sobre la ciudadanía de la Unión de 2010: la eliminación de los obstáculos a los derechos de los ciudadanos de la UE*” informea argitaratu zuen,

¹⁵ DO C 53 de 3.3.2005, pág. 1

¹⁶ COM (2006) 400 final.

¹⁷ 2016/1104 Erreklamenduaren 1. eta 5. Kontuan Hartuzkoak.

¹⁸ 2016/1104 Erreklamenduaren 6. Kontuan Hartuzkoa.

bertan, bikoteek haien ondarearen banaketa eta administrazioan dituzten arazoak konpontzeko helburua izango zuen lege-proposamen bat eratuko zela jakinaraziz¹⁹.

2011ko martxoaren 16an, bi lege-proposamen eratu zituen Batzordeak. Lehena, ezkontza eraentza ekonomikoaren eremuan (*“Propuesta de Reglamento del Consejo relativo a la competencia, la ley aplicable, el reconocimiento y la ejecución de resoluciones en materia de regímenes económicos matrimoniales”*²⁰), eta bigarrena, izatezko bikoteen ondarezko ondorioen eremuan (*“Propuesta de Reglamento del Consejo relativo a la competencia, la ley aplicable, el reconocimiento y la ejecución de resoluciones en materia de efectos patrimoniales de las uniones registradas”*²¹)²².

Behin lege-proposamenak eginda, EB-ko Kontseiluak ondorioztatu zuen proposamenak aho batez onartzea ez zela posible izango. Izan ere, Estatu kide bakoitzean familia eredu ezberdinak daude, eta zenbaitetan, izatezko bikoteen instituzioa ez da juridikoki aurreikusten. Hori dela eta, kontseiluaren ustetan, kooperazio indartua zen 2016/1104 Erreklamendua indarrean jartzeko mekanismo egokiena.

2015eko abendua eta 2016ko otsaila tartean, Belgikak, Bulgariak, Txekiar Errepublikak, Greziak, Alemaniak, Espainiak, Frantziak, Kroaziak, Italiak, Luxenburgok, Maltak, Herbehereak, Austriak, Portugalek, Esloveniak, Finlandiak eta Sueziak, Batzordeari jakinarazi zioten 2016/1104 Erreklamenduan (baita 2016/1103 Erreklamenduan ere), kooperazio indartua ezartzeko zuten nahia. Era berean, 2016ko martxoan, Txiprek Batzordeari jakinarazi zion kooperazio indartura batzeko nahia²³.

2016ko ekainaren 9an, Europar Kontseiluak kooperazio indartua baimentzen zuen erabakia eman zuen: *Decisión (UE) 2016/954 del Consejo, de 9 de junio de 2016, por la que se autoriza una cooperación reforzada en el ámbito de la competencia, la ley aplicable, el reconocimiento y la ejecución de resoluciones relativas a los regímenes económicos de las parejas internacionales, tanto en materia de regímenes económicos*

¹⁹ 2016/1104 Erreklamenduaren 8. Kontuan Hartuzkoa.

²⁰ COM (2011) 126/F1.

²¹ COM (2011) 127/F1.

²² 2016/1104 Erreklamenduaren 9. Kontuan Hartuzkoa.

²³ 2016/1104 Erreklamenduaren 11. Kontuan Hartuzkoa.

*matrimoniales como de efectos patrimoniales de las uniones registradas*²⁴.

Behin prozesua zein izan den ezaguturik, jarraian 2016/1104 Erreklamenduaren azterketari ekingo diogu.

Erreklamenduaren 15. Kontuan Hartuzkoak dioenez, ezkondu gabeko bikoteen segurtasun juridikoa bermatzeko, eta haien ondareari dagokionez nolabaiteko aurre ezagutza bat eskaintzeko, komenigarria da tresna bakar batean izatezko bikoteen ondarezko ondorioei aplikagarri zaien arau guztiak jasotzea.

2016/1104 Erreklamendua ezargarria izateko, ezinbestekoa da honen ezarpen-eremuak zeintzuk diren zehaztea. Hauek dira nazioarteko Zuzenbide pribatuan dauden ezarpen-eremu ezberdinak:

a) Ezarpen-eremu materiala

2016/1104 Erreklamenduaren ezarpen-eremu materiala bere 1. artikuluan zehazten da. Erreklamendua ezargarria da mugaz gaindiko eraginak dituzten izatezko bikoteen ondarezko ondorioen testuinguruan. Honek barne hartzen ditu bai bikotekideek egiten duten haien ondasunen eguneroko administrazioa eta baita ondarearen likidazioa ere, bikotearen banaketaren edo horietako baten heriotzaren ondorioz datorrena²⁵.

Erreklamenduak berak, izatezko bikotearen nahiz izatezko bikotearen ondarezko ondorioen definizioak ematen ditu, bere 3. artikuluan:

“a) “unión registrada”: régimen de vida en común de dos personas regulado por la ley, cuyo registro es obligatorio conforme a dicha ley y que cumple las formalidades jurídicas exigidas por dicha ley para su creación;

b) “efectos patrimoniales de la unión registrada”: conjunto de normas relativas a las relaciones patrimoniales de los miembros de la unión registrada entre sí y con terceros, como resultado de la relación jurídica creada por el registro de la unión o su disolución;”.

²⁴ DO L 159 de 16.6.2016, pág. 16/18

²⁵ 2016/1104 Erreklamenduaren 18. Kontuan Hartuzkoa.

Izatezko bikoteen definizioa kontzeptu autonomoa da, soilik Erreglamenduaren esparruan izango da baliagarria. Kontzeptuaren edukia, Estatu kideen barne ordenamenduek definituko dute; izan ere, Erreglamenduko xedapenek ezin dute Estatu kide bat izatezko bikoteen figura juridikoa ezartzera behartu, bere barne ordenamenduak ez badu instituzio hau aurreikusten²⁶.

Arazo fiskalak, aduana arazoak nahiz arazo administratiboak ez dira Erreglamendu honen bidez arautzen. Lehen artikuluko bigarren atalean, ezarpen-eremu materialetik kanpo dauden gaiak zehazten dira: a) bikotekideen gaitasun juridikoa²⁷; b) izatezko bikotearen existentzia, baliozkotasuna eta aintzatepena²⁸; c) mantenu obligazioak²⁹; d) bikotekide baten heriotzaren ondoriozko oinordetza³⁰; e) gizarte segurantza; f) jubilazio edo ezgaitasun pentsiorako eskubideak, desegite edo baliogabetze kasuetatik eratorritakoak³¹; g) ondasun baten gaineko eskubide errealeen izaera³²; eta h) ondasun higiezin nahiz higigarriei buruzko eskubideen erroldan

²⁶ 2016/1104 Erreglamenduaren 17. Kontuan Hartuzkoa.

²⁷ Ezkontideen gaitasun juridikoaren bazterketari ñabardura bat egin behar zaio. Izan ere, 20. Kontuan Hartuzkoak ezartzen duenez, bazterketa honek ez ditu barne hartu behar ezkontide batek edo biek bere ondarearen gain dituen ahalmen eta eskubide zehatzak, hauek Erreglamenduaren aplikazio eremuan sartzen baitira.

²⁸ Gai hauek barne ordenamenduen bidez arautu beharko lirateke, izatezko bikoteen instituzioa aurreikusten duten Estatuetan.

²⁹ Mantenu obligazioak ezin dira 2016/1104 Erreglamenduaren aplikazio eremuan sartu, gai honek bere Erreglamendu propioa baitu: *Reglamento (CE) 4/2009 del Consejo, de 18 de diciembre de 2008, relativo a la competencia, la ley aplicable, el reconocimiento y la ejecución de las resoluciones y la cooperación en materia de obligaciones de alimentos.*

³⁰ Mantenu obligazioekin gertatzen den bezala, heriotzaren ondoriozko oinordetza beste Erreglamendu batean arautzen da, zehazki *Reglamento (UE) 650/2012 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 4 de julio de 2012, relativo a la competencia, la ley aplicable, el reconocimiento y la ejecución de los documentos públicos e materia de sucesiones mortis causa y a la creación de un certificado sucesorio europeo.*

³¹ 2016/1104 Erreglamenduaren 1.2.f) artikulua dio, aplikazio eremutik kanpo egongo dela, *“El derecho de transmisión o ajuste entre los miembros de la unión registrada, en caso de disolución o anulación de la misma, de los derechos de pensión de jubilación o de invalidez devengados durante la vigencia de la unión registrada y que no hayan dado lugar a ingresos en forma de pensión durante la vigencia de esta”*. Hala ere, 23. Kontuan Hartuzkoak hurrengoaz ezartzen du: *“Esta exclusión debe ser interpretada de forma estricta. Por ello, el presente Reglamento debe regular en particular la cuestión de la clasificación de los activos de pensiones, los importes que ya se hayan abonado a uno de los miembros de la unión registrada durante la vigencia de esta y la posible compensación que se concedería en caso de pensiones suscritas con bienes comunes”*.

³² Gai hau baztertearen arrazoia Erreglamenduaren 24. Kontuan Hartuzkoan azaltzen da: *“El presente Reglamento debe permitir la creación o la transmisión resultante de los efectos patrimoniales de las uniones registradas de un derecho sobre bienes muebles o inmuebles. Sin embargo, ello no debe afectar al número limitado de derechos reales reconocidos en el ordenamiento jurídico de algunos Estados*

egindako inskripzioak, baita inskripzioa egiteko ukanbeharrak eta inskripzioa egitearen edo ez egitearen efektuak ere.

b) Ezarpen-eremu lurraldetarra

Ezarpen-eremu lurraldetarrari dagokionez, 2016/1104 Erreklamenduak kooperazio indartuaren mekanismoa aurreikusten dute. Beraz, ezargarria izango da kooperazio indartu honetan partaide diren Estatu kideetan.

c) Ezarpen-eremu pertsonala

2016/1104 Erreklamenduak aplikazio eremu unibertsala du. Nahiz eta lurralde eremua mugatua egon – soilik kooperazio indartuan partaide diren Estatu kideetako organo judizialek aplikatu ditzakete Erreklamendua – ez da muga pertsonalik aurreikusten. Hori dela eta, nazioarteko dimentsioa duten auzi guztiengan izango da ezargarria Erreklamendua (betiere, izatezko bikoteen ondare efektuei buruzko auziak direnean), kontuan hartu gabe bikotekideen nazioartekotasuna edo ohiko egoitza zein den³³.

2016/1104 Erreklamenduak Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren lau atalak arautzen ditu, hau da, nazioarteko eskuduntza judiziala (NEJ), ezargarria den legea (EL), ebazpen judizialen aintzatespena eta horien betearazpena, izatezko bikoteen ondarezko ondorioen eremuan. Jarraian, atal bakoitza aztertuko da banan-banan.

miembros. No se debe exigir a un Estado miembro que reconozca un derecho real relativo a bienes ubicados en ese Estado miembro si su Derecho desconoce el derecho real del que se trate”.

³³ P. Peiteado Mariscal, “Competencia internacional por conexión en materia de régimen económico matrimonial y de efectos patrimoniales de las uniones registradas. Relación entre los Reglamentos UE 2201/2003, 650/2012, 1103/2016 y 1104/2016”, *Cuadernos de Derecho Transnacional*, vol. 9, marzo de 2017, pág. 302

1. NAZIOARTEKO ESKUDUNTZA JUDIZIALA

Izatezko bikoteen ondarezko ondorioei buruzko eskuduntza, 2016/1104 Erreklamenduaren II. Kapituluaren arautzen da.

a) Lotura duten auzien eskuduntza

Erreklamendu honen helburuetako bat lotura duten prozedura ezberdinak Estatu bereko organo jurisdikzionalen aurrean ebatzi ahal izatea da³⁴.

Eskuduntza esleitzeko arauak atal ezberdinetan banatzen dira. Kontuan hartuz Erreklamenduaren helburuetako bat lotura duten auziak organo berdinen aurrean ebaztea dela, 4. eta 5. artikuluek lotura horretan oinarritzen dira eskuduntza esleitzeko.

Adibidez, Estatu jakin baten 2012/650 Erreklamenduaren³⁵ arauak jarraituz, bikotekideetako baten heriotzaren ondoriozko oinordetza prozesu bat irikita dagoenean, eta izatezko bikotearen ondarezko ondorioak oinordetza horrekin lotura duenean, oinordetzari buruz ezagutzen duen organo jurisdikzionalak izatezko bikotearen ondarezko ondorioei buruzko auziaz ezagutzeko eskuduna izango da.

Edo, izatezko bikotea, desgite edo baliogabetze prozesu batean badago, krisiari buruzko prozesua ezagutzen duen organo jurisdikzionalak ondarezko ondorioen likidazioari buruzko auzia ezagutzeko eskuduntza izango du, beti ere, bikotekideak ados badaude.

Lotura duten auzien eskuduntza esleitzeko arau hauek, aldi berean, abantailak eta desabantailak dituzte. Adibidez, baliteke izatezko bikoteen ondarezko ondorioei buruzko auziak lotura duela oinordetzari buruzko auzi batekin. Kasu horretan, oinordetzari buruzko auziaz ezagutzen duen organoak ondarezko ondorioei buruzko auziaz ezagutzeko eskuduntza izango du. Hala izanik, baliteke bi Erreklamenduen

³⁴ 2016/1104 Erreklamenduaren 32. Kontuan Hartuzkoa.

³⁵ *Reglamento (UE) n° 650/2012 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 4 de julio de 2012, relativo a la competencia, la ley aplicable, el reconocimiento y la ejecución de las resoluciones, a la aceptación y la ejecución de los documentos públicos en materia de sucesiones mortis causa y a la creación de un certificado sucesorio europeo (DO L 201, de 27.7.2012, pág. 107/134).*

(2012/650 eta 2016/1104) arteko koordinazio arazoak gertatzea.

Aitzitik, bere alde ona badu. Izan ere, organo jurisdikzional berdinen aurrean bi prozedura tarteratzeak, alde batetik, kontrajarriak diren ebazpenak jasotzeko aukera oztopatzen du, eta bestetik, ekonomia prozesalaren printzipioarekin bat dator. Hau da, prozesuen iraupena eta gastuak bikoitzak izatea ekiditen du.

b) Eskuduntza beste kasu batzuetan

Baliteke izatezko bikoteen ondarezko ondorioen berezko arazoak izatea auzigai, eta loturarik ez izatea oinordetza, desegite edo baliogabetze prozesu batekin. Kasu horretan, Erreklamenduaren 6. artikuluan hainbat eskuduntza-foro aurreikusten ditu, hierarkikoak direnak: a) bikotekideen ohiko egoitza demanda tarteratzen den momentuan; b) bikotekideen azken ohiko egoitza, horietako bat oraindik bertan bizi bada, demanda tarteratzen den unean; c) demandatuaren ohiko egoitza, demanda tarteratzen den unean; d) bikotekideen naziokotasun amankomuna, demanda tarteratzen den unean; edo e) izatezko bikotea zein legeri jarraiki eratu den eta lege horrekin bat datorren estatuko organo jurisdikzionala.

c) Esanbidezko eta isilbidezko menekotasuna

Erreklamenduaren 7. eta 8. artikuluek, esanbidezko eta isilbidezko menekotasuna arautzen dute, hurrenez hurren. Esanbidezko menekotasunari dagokionez, 7. artikuluek hurrengo aurreikusten du: *“En los casos contemplados en el artículo 6, las partes podrán acordar que los órganos jurisdiccionales del Estado miembro cuya ley sea aplicable de conformidad con el artículo 22 o el artículo 26, apartado 1, o los órganos jurisdiccionales del Estado miembro conforme a cuya ley se haya creado la unión registrada tengan competencia exclusiva para resolver sobre los efectos patrimoniales de su unión registrada”*. Eskuduntza esklusiboa esleitzeko akordioa idatziz adierazi beharko da, data jarritz eta bi bikotekideek sinatua.

Isilbidezko menekotasuna demandatuaren agerraldian oinarritzen da. Erreglamenduaren xedapenak jarraituz, Estatu baten legea ezargarria suertatzen denean, eta demandatua Estatu horretako organo jurisdikzionalen aurrean agertzen denean, hura izango da eskuduna. Baina, demandatuaren agerraldiak helburu badu eskuduntzari uko egitea, arau hau ez da aplikagarria izango.

d) Eskuduntza alternatiboa, subsidiarioa eta “forum necessitatis”

Menekotasunaren ondoren, eskuduntza alternatiboa (9. art) eta eskuduntza subsidiarioa (10. art) arautzen dira. 4, 5 edo 6. artikulua aplikatuz eskuduna suertatzen den Estatuko organoak inhibitzeko aukera izango du, Estatu horretako barne Zuzenbideak izatezko bikotearen instituzioa aurreikusten ez badu. Aipaturiko organoak bere eskuduntzari uko egiten badio, eta bikotekideek esanbidezko menekotasunaren bidez eskuduntza esleitzeko aukera badute, haiek aukeratutako organoa izango da eskudun. Aukera horren ezean, 6. artikuluan aurreikusitako eskuduntza-foroen bidez zehazturiko organoa edo isilbidezko menekotasunaren bidez zehazturikoa izango da eskudun.

Eskuduntza subsidiarioari dagokionez, orain arte aipaturiko artikuluen bitartez ezin bada organo eskuduna zehaztu, bikotekide baten edo bien ondasun higiezin kokapenean oinarrituz esleituko da eskuduntza. Hau da, bikotekideetako baten edo bien ondasun higiezin bat Estatu kide batean dagoenean, Estatu kide horretako organo jurisdikzionalak izango dira eskudun. Hala ere, organoaren eskuduntza soilik ondasun higiezinari buruzko auzia ebaztera mugatuko da.

Erreglamenduaren 11. artikulua *“forum necessitatis”* bat aurreikusten du. Honen arabera, aurreko arauak aplikatuz ezin bada eskuduntza esleitu, edo auzia ezin bada hirugarren Estatu batean garatu, nahiz eta hirugarren Estatu honek izatezko bikotearekin lotura estua izan, Estatu kide bateko organo jurisdikzionalak izango dira eskudun. Estatu kide honek lotura nahikoa izan beharko du izatezko bikotearekin.

e) Errekonbentzioak

Errekonbentzio demandei dagokienez (12. art), 4, 5, 6, 7, 8, 10 edo 11. artikuluetan oinarriz eskuduna den organoa, eta auziaz ezagutzen duena, errekonbentzioak ebazteko eskuduna izango da, beti ere, azken hauek Erreklamenduaren ezarpen eremuan sartzen diren bitartean.

f) Litispendentzia eta lotutako demandak

Erreklamenduaren 17. artikulua litispendentziari egiten dio erreferentzia. Bertan adierazten denez, Estatu kide ezberdinetako organo juridikzionalen aurrean, alderdi eta objektu berdinak dituzten demandak tartaratzen direnean, demanda jaso duen azkeneko organoak prozedura eten egingo du. Lehen organoa eskuduna dela deklaratzeko duenean, gainontzekoek eskuduntzari uko egingo diote lehenaren alde.

Bestalde, Erreklamenduaren 18. artikulua arabera, Estatu kide ezberdinetako organoen aurrean, lotura duten demandak ebazteko zain daudenean, auziaz ezagutu duen azkeneko organoak prozedura etengo du. Aipaturiko demandak ebazteko zain daudenean lehen instantzian, demandak beranduago jaso dituzten organoek haien eskuduntzari uko egiteko aukera izango dute, alderdietako baten eskariz. Lehen organoak auziaz ezagutu ahal izateko beharrezkoa da horretarako eskuduna izatea eta bere barne legediak demanden pilaketa baimentzea. Artikulu honen ondorioetarako lotura duten demandak kontsideratuko dira harreman hain estua dutenak, komenigarria izango delarik batera izapidetu eta epaitzea, kontrajarriak diren ebazpenak ekiditeko asmoz.

2. EZARGARRIA DEN LEGEA

2016/1104 Erreglamenduaren hirugarren kapituluaren arautzen da izatezko bikoteen ondarezko ondorioei ezargarrria izango zaien legea (20-35. art.). Jarraian, hirugarren kapituluko xedapenak aztertuko dira, bertan azaltzen diren atal ezberdinak bereiziz.

a) *Ezargarrria den legearen aukeraketa*

Izatezko bikoteen ondare harremanak bi modutan arautu daitezke: alde batetik, bikotekideek itundu dezakete zein izango den lege ezargarrria, eta bestalde, akordiorik egon ezean, Erreglamenduak aurreikusten duen legea izango da ezargarrria.

Bi arauketa modalitate hauek aztertu baino lehen, aipagarriak dira Erreglamenduak ezartzen dituen bi printzipio nagusi: aplikazio unibertsala³⁶ eta ezargarrria den legearen batasuna³⁷.

Legearen izaera unibertsalak inplikatzeko du, Erreglamendu honen arauen bidez aplikagarria suertatzen den legea ezargarrria izango dela, nahiz eta kide ez den Estatu batena izan. Hau da, Erreglamendu honen arauak jarraituz ondorioztatzen bada lege aplikagarria Europar Batasuneko kide ez den Estatu bateko legea dela, hura aplikatuko da.

Ezargarrria den legearen batasunari dagokionez, Erreglamenduak arauketa bakarra ezartzen du ondasun multzo osoarekiko. Ez da kontuan hartzen ondasunen izaera zein den (higigarri edo higiezina), ezta horien kokalekua ere. Beraz, ondasun multzo osoari, hau da, izatezko bikotearen ondare osoari lege berbera aplikatuko zaio, izatezko bikoteen ondarezko ondorioei ezargarrria zaien legea, alegia.

³⁶ 2016/1104 Erreglamenduaren 20. art: *“La ley que se determine aplicable en virtud del presente Reglamento se aplicará aunque no sea la de un Estado miembro”*.

³⁷ 2016/1104 Erreglamenduaren 21. art: *“La ley aplicable a los efectos patrimoniales de una unión registrada se aplicará a todos los bienes que sean objeto de tales efectos, con independencia del lugar en que se encuentren los bienes”*.

Arestian aipatuenez, ezargarria den legearen arauketa, bi atal nagusietan banatzen da: ezargarri den legearen aukeraketa eta aukeraketarik egon ezean, Erreklamenduak aurreikusten duen lege aplikagarria.

2016/1104 Erreklamenduak, ezargarria den legea zehazterako orduan, lehentasuna ematen dio alderdien borondate autonomiari. Hala izanik, bere 22. eta hurrengo artikuluetan ezargarria den legearen aukeraketa arautzen du.

Beraz, izatezko bikotekideek, itun bidez bere ondarezko ondorioei ezargarria izango zaien legea zehaztu edo aldatzeko aukera dute, beti ere, aukeratutako legeak izatezko bikotei ondarezko ondorioak esleitzen dizkionean. Nahiz eta bikotekideek aukeratzeko eskubidea izan, aukeraketa hau ezin da guztiz askea izan, aukeratutako legeak, izatezko bikotearekin harreman minimo bat izan behar duelako.

Hala izanik, aukeratutako legea izan beharko du, akordioa ospatzerako unean: a) bikotekideek edo horietako batek ohiko egoitza duen Estatuko legea; b) bikotekideetako edozeinen naziokotasunaren legea; edo c) izatezko bikotea eratu den Estatuko legea³⁸.

Izatezko bikotea indarrean dagoen bitartean kideek haien aukera aldatu dezakete, baina aldaketa honek, bikotekideek kontrakorik adosten ez duten heinean, soilik etorkizunera begira sortuko ditu ondorioak. Hala ere, bikotekideek adosten badute ezargarria den legearen aldaketak atzeraeraginkortasunez ondorioak sortuko dituela, hirugarrenen eskubideak ez dira kaltetuak suertatuko.

❖ Baliozkotasunerako ukanbeharrak:

Erreklamenduak zenbait arau ezartzen ditu hautaketa baliozkoa izan dadin, izan ere, hautaketa ezin da nolana eman, zenbait ukanbehar galdatzen direlarik. Hala, Erreklamenduaren 23. eta 24. artikuluek aukeraketaren baliozkotasun formala eta materiala arautzen dituzte, hurrenez hurren.

³⁸ 2016/1104 Erreklamenduaren 22.1.c) artikulua: “*la ley del Estado conforme a cuya ley se haya creado la unión registrada*”.

Baliozkotasun formalari dagokionez, Erreglamenduak gutxieneko ukanbeharrak ezartzen ditu: lege aplikagarriaren aukeraketari buruzko akordioa idatzizkoa izan behar du, akordioaren ospakizunaren data jarri behar da eta bi bikotekideek sinatu behar dute.

Horrez gain, bikotekideek, akordioa adosterako unean ohiko egoitza Estatu berean badute, eta Estatu horren legediak baliozkotasun formalerako ukanbehar gehigarriak galdatzen baditu, horiek bete beharko dira. Era berean, bikotekideek ohiko egoitza Estatu ezberdietan izatekotan, soilik horietako batek galdatzen baditu ukanbehar gehigarriak, bete egin beharko dira, baina bi Estatuak galdatzekotan, horietako batenak betetzearekin nahikoa izango da.

Adostasuna eta baliozkotasun materiala 24. artikuluan arautzen da. Bertan, hurrengoa aurreikusten da: *“La existencia y validez de un acuerdo sobre la elección de la ley o de sus disposiciones se determinarán con arreglo a la ley que sería aplicable en virtud del artículo 22 si el acuerdo o la disposición fueran válidos”*.

Jarraian, 25. artikulua izatezko bikoteen itunei egiten die erreferentzia. Zehazki, itunen baliozkotasun formalari erreparatzen dio. Erreglamenduaren 47. Kontuan hartuzkoak dioenez, itunak, bikotearen ondareari buruzko xedapen mota bat dira, eta horien onarpena aldatu egiten da Estatu kide batetik bestera. Hala izanik, itunen ondorioz eskuratutako eskubide ekonomikoak Estatu kideetan onartuak izan daitezkeen errazteko asmoz, itunen baliozkotasun formalerako zenbait arau ezartzen dira.

Beraz, itunak idatziz jaso behar dira, horiek emandako uneko data jarritz, eta bi kideek sinatuta. Horrez gain, itunek beste ukanbehar gehigarri batzuk bete beharko dituzte: Erreglamenduaren arabera ezargarria suertatzen den legeak ezartzen dituen ukanbeharrak, eta baita bikotekideek haien ohiko egoitza duten Estatuaren legeak ezartzen dituenak ere. Azken galdakizun honi dagokionez, bikotekideek ohiko egoitza Estatu kide ezberdinetan badute, horietako baten legediak ezartzen dituen ukanbeharrak betetzearekin nahikoa izango da. Azkenik, itunak ematerako unean soilik bikotekideetako batek badu ohiko egoitza Estatu kide batean, eta horrek ukanbehar gehigarriak galdatzen baditu, bete egin beharko dira.

❖ Borondate autonomia:

Ezargarria den legearen aukeraketaren atalarekin amaitu baino lehen, komenigarria da borondate autonomiari buruzko aipamena egitea, izan ere, 2016/1104 Erreklamenduak lehentasuna ematen dio borondate autonomiari, ezargarria den legea zehazteko unean.

Borondate autonomia, tradizionalki, nazioarteko kontratuetan aitortua izan da, esaterako Erroma I eta Erroma III (“*Reglamento (UE) n ° 1259/2010 del Consejo, de 20 de diciembre de 2010 , por el que se establece una cooperación reforzada en el ámbito de la ley aplicable al divorcio y a la separación judicial*”³⁹) Erreklamenduetan. Azken urteotan, beste eremu material batzuetara zabaldu du EB-ko legegileak, zeintzuetan bere eraginkortasuna ez zen egokia kontsideratzen, hala nola, Familia Zuzenbidearen eremura. Alderdien borondate autonomia irizpide malgu bat da, alderdien arteko auziak haien borondatearen arabera konpontzeko aukera ematen duena. Era berean, ziurtasuna, segurtasun juridikoa eta pertsonen zirkulazio askea mesedetu egiten dituen lotura da.

Estatu kide gehienetan, baita Espainiar Estatuan ere, borondate autonomia aitortu egiten da ezkontza eraentza ekonomikoen eremuan. Ez da gauza bera gertatzen, ordea, izatezko bikoteen ondarezko ondorioei dagokionez. 2016/1104 Erreklamenduak, aldiz, izatezko bikoteei aitortzen die borondate autonomia.

Bi motatako borondate autonomia bereizten dira, alde batetik, autonomia materiala, eta bestalde, gatazka-autonomia (*autonomía conflictual*). Autonomia materialari esker, bikotekideen ondare harremanak haiek adostutako itunen bidez arautuko dira. Gatazka-autonomiak, aldiz, ondare harremanei ezargarria izango zaien legea aukeratzea bideratzen du. Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko gatazka-arau guztiek ez dute autonomia aurreikusten lotura puntu nagusi bezala, batez ere, Familia Zuzenbidearen eremuan, baina hala egiten du 2016/1104 Erreklamenduak⁴⁰.

³⁹ *DO L 343 de 29.12.2010, pág. 10/16.*

⁴⁰ M. Vinaixa Miquel, “La autonomía de la voluntad en los recientes Reglamentos UE en materia de regímenes económicos matrimoniales (2016/1103) y efectos patrimoniales de las uniones registradas (2016/1104)”, *InDret*, Homenaje a Núria Bouza, 2/2017, pág. 288-289.

Izatezko bikoteen ondarezko ondorioei dagokienez, autonomia materiala Estatu kideek haien barne Zuzenbidearen bitartez arautu beharrekoa da. 2016/1104 Erreklamenduak arautzen duena, gatazka-autonomia da. Nahiz eta Erreklamenduak lege aplikagarria aukeratzeko eskubidea eman, autonomia hau mugatua da. Izan ere, aurrez aipatu den bezala, bikotekideek ezin dute edozein lege aukeratu.

Gure aburuz, Erreklamendu honek borondate autonomiari ematen dion garrantziak aurrerapaso nabaria suposatzen du izatezko bikoteentzako. Kontuan hartuz, orain arte Europar Batasunak ez dituela izatezko bikoteak arautu, eta Estatu kide batzuen arauketa nahiko urria dela, abantaila izugarria eskaintzen du ezargarria den legearen eremuan aitortzen den borondate autonomia.

b) Ezargarria den legea alderdien aukeraketarik egon ezean

Arestian adierazi den bezala, 2016/1104 Erreklamenduak bi modu aurreikusten ditu izatezko bikoteen ondarezko ondorioei ezargarria zaien legea zehazteko. Lehena, jada aztertu den legearen aukeraketa da, borondate autonomia, alegia. Bigarrena, alderdien akordiorik ez dagoenean, Erreklamenduak bere 26. artikuluan aurreikusten duen legea izango da ezargarri.

Beraz, bikotekideek haien ondarezko ondorioei ezargarria izango zaien legea itun bidez zehazten ez dutenean, Erreklamenduak subsidiarioki aplikagarria izango den legea zehazten du. Erreklamenduaren 26.1 artikulua aurreikusten duenez, ezargarria izango da izatezko bikotea lege baten arabera eratu eta lege hura⁴¹. Hau da, izatezko bikotea Estatu jakin bateko legediaren arabera eratu da, eta bikotekideek ezargarria den legeri buruzko akordiorik egin ez dutenean, Estatu horretako legea izango da ezargarria.

Salbuespenez eta bikotekideetako edozeinen eskariz, ondarezko ondorioei buruz ezagutzeko eskuduna den autoritate judizialak erabaki dezake beste Estatu bateko legea dela ezargarria, eraketa legearen orde. Horretarako beharrezkoa da eskaria egiten duen kideak frogatzea bikotekideek haien azken ohiko egoitza amankomuna bigarren Estatu horretan izan zutela denbora luzeagoz; edo bikotekideek bigarren Estatu horretako

⁴¹ 2016/1104 Erreklamenduaren 26.1 art: “*En defecto de un acuerdo de elección de la ley aplicable con arreglo a lo dispuesto en el artículo 22, la ley aplicable a los efectos patrimoniales de la unión registrada será la ley del Estado conforme a cuya ley se haya creado la unión registrada*”.

legedian oinarritu zirela haien ondare harremanak antolatzeko.

Bigarren Estatu horretako legediaren ezargarritasunari dagokionez, hurrengo adierazten du Erreklamenduaren 26.2 artikulua: *“La ley de ese Estado distinto solo se aplicará a partir de la creación de la unión registrada, a menos que uno de sus miembros no esté de acuerdo. en este último caso, la ley de ese otro Estado surtirá efecto a partir del establecimiento de la última residencia habitual común en dicho Estado”*.

Artikulu honetako lehen atalari jarraiki ezargarria den legetik - izatezko bikotearen eraketa legea - eratorritako hirugarrenen eskubideak ezingo dira kaltetuak izan bigarren Estatuko legearen ezarpenaren ondorioz. Horrez gain, artikulua azken atalak horren aplikagarritasunaren salbuespen bat jasotzen du: *“El presente apartado no se aplicará cuando los miembros de la unión registrada hayan celebrado capitulaciones con anterioridad al establecimiento de su última residencia habitual común en dicho Estado”*.

c) Ezargarria den legearen ezarpen-eremu materiala

Jarraian, 2016/1104 Erreklamenduaren 27. artikuluan, ezargarria den legearen ezarpen-eremua zehazten da. Bertan zerrendatzen dira zenbait gai, Erreklamendu honen arabera ezargarria den legeak arautu beharko dituenak: a) izatezko bikotekide baten edo bien ondasunen sailkapena, izatezko bikotea irauten duen bitartean, eta baita horren desegitearen ondoren ere; b) ondasunen aldaketa kategoriatik bestera; c) bikotekide baten erantzukizuna besteari betebeharrak eta zorreatik; d) bikotekide baten edo bien ahalmen, eskubide eta obligazioak, ondareari dagokionez; e) izatezko bikotearen desegite kasuan, ondarearen banaketa, distribuzioa edota likidazioa; f) izatezko bikotearen ondarezko ondorioak, bikotekide baten eta hirugarren baten arteko harreman juridikoari dagokionez; eta g) izatezko bikotearen itunen baliozkotasun materiala.

d) *Polizia legeak eta ordena publikoa*

Polizia legeei dagokienez, 30. artikuluan adierazten da 2016/1104 Erreklamenduaren xedapenek ez dutela foro-legeari dagozkion polizia legeen aplikazioa mugatuko. Polizia legeak zuzenean ezargarriak diren legeak dira, Estatu bakoitzak ematen dituen arauak, nazioartean inperatiboak direnak; hau da, kasu guztietan aplikatzen diren arauak dira, kontuan hartu gabe nazioarteko elementurik jasotzen dutenentz⁴².

Polizia Legeen definizioa eman zuen lehen araua Erroma I Erreklamendua izan zen: *“Reglamento (CE) 593/2008 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 17 de junio de 2008, sobre la ley aplicable a las obligaciones contractuales”*⁴³. Erroma I Erreklamenduko 9.1 artikulua hala definitzen ditu polizia legeak: *“Las leyes de policía son disposiciones cuya observancia considera esencial un Estado miembro para salvaguardar sus intereses públicos, tales como su organización política, social o económica, hasta el punto de ser aplicables a toda situación que entre dentro de su ámbito de aplicación, cualquiera que sea la ley aplicable a los contratos en virtud del presente Reglamento”*.

2016/1104 Erreklamenduak definizio berdina ematen du bere 30.2 artikuluan, baina kontratuak aipatu orde izatezko bikoteen ondarezko ondorioak aipatzen ditu.

2016/1104 Erreklamenduaren hurrengo xedapenak, 31. artikulua, alegia, ordena publikoari egiten dio erreferentzia. Bertan agintzen denez, *“La aplicación de una disposición de la ley de cualquier Estado determinada por el presente Reglamento solo podrá ser rehusada si dicha aplicación es manifiestamente incompatible con el orden público (ordre public) del foro”*. Beraz, auziaz ezagutzen duen organo jurisdikzionalak, ezargarria den legea aplikatzeari uko egin diezaioke, baldin eta lege hura bere Estatuko ordena publikoaren aurkakoa bada.

Komenigarria da ordena publikoa zer den definitzea. Fernández Rozas autorearen hitzetan, ordena publikoa da: *“conjunto de principios que inspiran un ordenamiento jurídico y que reflejan los valores esenciales de una sociedad en un momento dado”*.

⁴² I. Espiñeira Soto, “Pinceladas de Derecho Internacional Privado”, *Notarios y Registradores*, 22 de febrero de 2010.

⁴³ *DO L 177 de 4.7.2008, pág. 6/16*

Printzipio eta balore hauek Konstituzio Zuzenbidean dute jatorria. Gatazka-arauaren bidez ezargarrria suertatzen den lege atzerritarrak Konstituzioarekin bat etorri behar du. Konstituzioak, Estatuko arau gorena izanik, garrantzi nabaria du Familia Zuzenbidearen alorrean, pertsonaren duintasuna, ezkontideen berdintasuna edota adingabearen babesa bezalako baloreak jasotzeagatik.

Azaldutakoa hobeto ulertzeko adibide bat jarriko dugu, pertsonaren duintasuna oinarri hartuz. Demagun, marokiar gizon bat eta espainiar emakume bat espainiar Estatuan ezkondu nahi direla. Gizona jada ezkontuta dago, baina bere lege pertsonalak ezkontza bat baino gehiago ospatzea baimentzen dio. Aldiz, Espainiar legediak ez du poligamia onartzen. Honen harira, 1994ko maiatzaren 11an, Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Orokorrak ebazpen bat eman zuen, halako ezkontza bat eragotziz, pertsonaren duintasun konstituzionala oinarri hartuz. Hau da, kontsideratzen da poligamiaren debekua ordena publikoko arazo bat dela, honen jatorria eskubide konstituzionala den pertsonaren duintasuna delarik⁴⁴.

Beraz, 2016/1104 Erreklamendura itzuliz, honek esaten duenez, auziaz ezagutzen duen organo jurisdikzionalak, ezargarrria den legea aplikatzeari uko egin diezaioke, baldin eta lege hura bere Estatuko ordena publikoaren aurkakoa bada. Gure ustez, logikoa da horrelako xedapen bat jasotzea. Izan ere, ordena publikoaren jatorria Konstituzioa izanik, ezin daiteke Estatu bat bere ordena publikoaren aurkako xedapen bat aplikatzera behartu, jarrera hori konstituzio kontrakoa izango litzatekeelako, eta ondorioz, Estatuak Europar Batasunaren aurrean duen subiranotasuna urratuko lukeelako.

e) Berrigorpenaren bazterketa

2016/1104 Erreklamenduak arautzen duen hurrengo atala berrigorpenaren bazterketa da (32. art): *“La aplicación de la ley de un Estado determinada por el presente Reglamento se entenderá como la aplicación de las normas jurídicas vigentes en ese Estado distintas de las normas de Derecho internacional privado”*. Beharrezkoa da ulertzea zer den zehazki berrigorpenaren kontzeptua. Kontzeptu hau hobeto ulertzeko, adibide baten bitartez azalduko dugu.

⁴⁴ J.C. Fernández Rozas, S. Sánchez Lorenzo, *op. cit.*, pág. 167-169.

Demagun espainiar Estatuko legediaren gatazka-arau batek frantziar ordenamendura igortzen gaituela. Berrigorpenak inplikutzen du kontuan hartu beharko direla frantziar ordenamenduko arau materialak, eta baita bertan jasotzen diren gatazka-arauak ere. Hala izanik, frantziar gatazka-arauak berriro ere espainiar legedira egiten badute igorpena, berrigorpen kasu baten aurrean egongo gara. Era berean, baliteke frantziar gatazka-arauak beste hirugarren Estatu baten legedira egitea igorpena, kasu horretan, bigarren mailako berrigorpenaren aurrean egongo ginateke.

Aldiz, berrigorpenaren bazterketa aurreikusten bada, 2016/1104 Erreklamenduan egiten den bezala, adibide berarekin jarraituz, soilik frantziar Estatuko Zuzenbide materiala hartuko da kontuan. Hau da, frantziar ordenamenduak jasotzen dituen gatazka-arauak at geratuko dira, bigarren igorpen bat galaraziz.

f) Lege-gatazkak: eskualde-artekoak eta pertsonalak

Ezargarria den legearen atalari amaiera emateko, 2016/1104 Erreklamenduaren 33, 34 eta 35. artikuluetan lege-gatazkei buruzko xedapenak jasotzen dira. Lege-gatazka hauek erregimen juridiko ezberdinak dituzten Estatuari egiten die erreferentzia. Alde batetik eskualde-arteko lege-gatazkak arautzen dira (33. art), eta bestalde, lege-gatazka pertsonalak (34. art).

❖ Eskualde-arteko lege-gatazkak:

Erreklamenduaren arabera, ezargarria den legea, izatezko bikoteen ondarezko ondorioei buruzko arau propioak dituzten lurralde ezberdinez osaturiko Estatu batena bada, bertako barne ordenamenduak aurreikusitako lege-gatazkei buruzko arauak zehaztuko dute zein lurraldetako legea izango den ezargarria.

Espanian, ez dago Estatu mailan ezargarria den legerik izatezko bikoteei dagokienez, Autonomia Erkidego batzuk haien arau propioak egin dituztelarik. Hala izanik, artikulua honen arabera, espainiar Kode Zibilak aurreikusten dituen lege-gatazkei buruzko arauak aplikatu beharko dira, ezargarria izango den legea zehazteko asmoz.

Gure ordenamenduan, KZ-ko 16. artikulua hurrengo xedatzen du: “1. *Los conflictos de leyes que puedan surgir por la coexistencia de distintas legislaciones civiles en el territorio nacional se resolverán según las normas contenidas en el capítulo IV [...]*”.

Hala ere, lege-gatazkak arautzen dituzten barne araurik egon ezean, Erreglamenduko 33.2 artikuluan aurreikusten diren arauak jarraitu beharko dira ezargarrria den legea zehaztu ahal izateko: “2. *En defecto de tales normas internas en materia de conflicto de leyes: a) toda referencia a la ley del Estado mencionada en el apartado 1 se entenderá, a efectos de determinar la ley aplicable con arreglo a las disposiciones relativas a la residencia habitual de los miembros de la unión registrada, como una referencia a la ley de la unidad territorial en la que los miembros de la unión registrada tengan su residencia habitual; b) toda referencia a la ley del Estado mencionada en el apartado 1 se entenderá, a efectos de determinar la ley aplicable con arreglo a las disposiciones relativas a la nacionalidad de los miembros de la unión registrada, como una referencia a la ley de la unidad territorial con la que los miembros de la unión registrada tengan una conexión más estrecha; c) toda referencia a la ley del Estado mencionada en el apartado 1 se entenderá, a efectos de determinar la ley aplicable con arreglo a cualesquiera otras disposiciones relativas a otros elementos que sean puntos de conexión, como una referencia a la ley de la unidad territorial en la que esté ubicado el elemento pertinente*”.

❖ Lege-gatazka pertsonalak:

2016/1104 Erreglamenduko 34. artikulua pertsonen arteko lege-gatazkak arautzen ditu: “*Cuando un Estado tenga dos o más regímenes jurídicos o conjuntos de normas aplicables a diferentes categorías de personas en materia de efectos patrimoniales de las uniones registradas, cualquier referencia a la ley de dicho Estado se entenderá como una referencia al régimen jurídico o al conjunto de normas determinado por las normas vigentes en tal Estado. En defecto de tales normas, se aplicará el régimen jurídico o el conjunto de normas con el que los miembros de la unión registrada tengan una conexión más estrecha*”.

Azkenik, 35. artikuluan Erreklamenduaren ezarpenari salbuespen bat jasotzen da. Bertan aurreikusten denez, izatezko bikoteen ondarezko ondorioei buruzko arau propioak dituzten lurralde unitate ezberdinez osaturiko Estatu kideak, ez dira behartuak izango eskusiboki lurralde unitate horien arteko lege-gatazkei Erreklamendua aplikatzera⁴⁵.

3. EBAZPENEN AINTZATESPENA ETA BETEARAZPENA

2016/1104 Erreklamenduaren IV. Kapituluaren arautzen dira ebazpenen aintzatespena, indar betearazlea eta betearazpena. Era berean, V. Kapituluaren agiri publikoen eta transakzio judizialen onarpena eta indar betearazleari buruzko xedapenak jasotzen dira.

Erreklamenduak ebazpenen, agiri publikoen eta transakzio judizialen zirkulazio askea aurreikusten du. Helburua da, Europar Batasuneko Estatu kideen integrazioaren ondoriozko konfidantzan oinarritutako elkarrekiko aintzatespena lortzea⁴⁶.

a) *Ebazpenak*

Estatu kide batean emandako ebazpenak, gainontzeko Estatu kideetan aintzatespenak izango dira, prozedura berezirik jarraitu behar izan gabe. Ebazpenaren betearazpena lortzeko, beharrezkoa izango da auziaz ezagutzen duen organo jurisdikzionalak horren indar betearazlea deklaratzeko, horretarako, Erreklamenduaren 45. artikuluan aurreikusitako prozedura jarraitu beharko da⁴⁷. Artikulu honetan ezarritako formaltasunak bete eta berehala deklaratuko da ebazpenaren indar betearazlea.

⁴⁵ 2016/1104 Erreklamenduaren 35. art: “*Los Estados miembros que comprendan varias unidades territoriales con sus propias normas jurídicas en materia de efectos patrimoniales de las uniones registradas no estarán obligados a aplicar el presente Reglamento a los conflictos de leyes que se planteen entre dichas unidades territoriales exclusivamente.*”

⁴⁶ I. Espiñeira Soto, “Resumen del Reglamento Europeo sobre Efectos Patrimoniales de las Uniones Registradas”, *Notarios y Registradores*, julio de 2016, pág. 5.

⁴⁷ 2016/1104 Erreklamenduaren 45. artikulua, Estatu kide batean emandako ebazpenak beste Estatu kide batean aintzatespenak izateko, eta horien indar betearazlea deklaratzeko jarraitu behar den prozedura aurreikusten du: “1. *El procedimiento de solicitud se regirá por la ley del Estado miembro de ejecución. [...] 3. La solicitud deberá ir acompañada de los documentos siguientes: a) una copia de la resolución*

Prozedura hau aldebakarrekoa da, eta lehenengo fase batean, dokumentuen egiaztapena besterik ez da egingo. Bigarren fase batean, soilik demandatuak aurka egiten badu, epaileak ebazpenaren ukapenerako arrazoiak aztertuko ditu.

Ebazpenaren aintzatespena ukatzeko arrazoiak Erreglamenduaren 37. artikuluan aurreikusten dira: a) aintzatespena, hura eskatzen den Estatu kidearen ordena publikoaren aurkakoa bada; b) ebazpena, demandatua auzi-ihesen egonda eman bada, salbu, ebazpenaren aurkako helegitea jartzeko aukera izan badu eta hura ez badu jarri; c) aintzatespena eskatzen den Estatu kidean, alderdi berdinen arteko prozedura batean emandako ebazpen batekin bateraezina bada; edo d) beste Estatu kide edo hirugarren Estatu baten, alderdi berdina eta objektu berdina izandako aurretiazko auzian emandako ebazpen batekin bateraezina bada, azken ebazpen hori, aintzatespena eskatzen den Estatuan aintzatetsia izateko ukanbeharrak betetzen dituenean.

Horrez gain, aintzatespena eskatzen den Estatu organo jurisdikzionalak, ezingo dute ebazpenaren jatorrizko Estatuaren eskuduntza kontrolatu. Era berean, ezingo da ebazpenaren funtsa edo mamia berrikusi.

Azkenik, aipatzekoa da organo jurisdikzionalak ez direla ebazpenak ematen dituzten bakarrak. Posible da beste autoritate batek⁴⁸, delegazioz, indar juridikoa duen ebazpen bat ematea. Ebazpen hauek, ebazpen judizialen parekoak kontsideratuko dira, eta ondorioz, aztergai dugun kapitulu honetako xedapenak ezargarriak izango zaizkie.

b) Agiri publikoak eta transakzio judizialak

Agiri publikoen onarpena eta indar betearazlea Erreglamenduaren 58 eta 59. artikuluetan arautzen dira.

Agiri publikoek garrantzi nabaria dute izatezko bikoteen ondarezko ondorioei dagokienean. Izan ere, aurrez aztertu den bezala, izatezko bikoteek haien eraentza

que reúna las condiciones necesarias para establecer su autenticidad; b) la certificación expedida por el órgano jurisdiccional o la autoridad competente del Estado miembro de origen mediante el formulario previsto de acuerdo con el procedimiento consultivo a que se refiere el artículo 67, apartado 2, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 46”.

⁴⁸ 2016/1104 Erreglamenduaren 3. artikuluan definizio batzuk aurreikusten dira. Bertan, 3.2 artikuluan, organo jurisdikzionalen definizioa ematen da, eta hala esaten du: “*A efectos del presente Reglamento, se entenderá por «órgano jurisdiccional» toda autoridad judicial y todas las demás autoridades y profesionales del Derecho con competencias en materia de efectos patrimoniales de las uniones registradas que ejerzan funciones jurisdiccionales o que actúen por delegación de poderes de una autoridad judicial o bajo su control [...]”.*

ekonomikoa itun bidez ezarri behar dute, hau da, agiri publiko baten bidez. Hala izanik, beste Estatu kide batean jatorrizko Estatuan duten balio frogagarri berdina izango dute, bigarren Estatu horretako ordena publikoaren aurkakoak ez diren bitartean. Agiriaren egiaztasunaren aurkako helegiteren bat tarteratu nahi bada, jatorrizko Estatuaren organo jurisdikzionalen aurrean egin beharko da. Hala izanik, agiriak ez du balio frogagarririk izango helegitea ebazten den arte.

Agiri hauen eta transakzio judizialen indar betearazleari dagokionez, ebazpenekin gertatzen den bezala, jatorrizko Estatuan indar betearazlea duten agiriak eta transakzio judizialak, betearazpen Estatuan indar berdina izango dute. Agiria edo transakzioa egin duen autoritateak, alderdietako edozeinen eskariz, ziurtagiri bat igorriko du, agiriaren edo transakzioaren egiazkotasuna frogatzeko.

Gure ustez, europar legegileak xedapen hauek aurreikusiz, Europar Batasuneko kide diren Estatuaren arteko konfidantza harremana areagotu nahi du. Izan ere, dakigunez, EB-ren helburuetako batzuk Estatuaren arteko integrazioa eta pertsonen zirkulazio askea dira, eta horretarako, beharrezkoa da Estatu bateko eta besteko organo jurisdikzionalen arteko harreman baketsua eta konfidantzazkoa.

Hala izanik, ezinbestekoa da Estatu ezberdinetako organoen arteko harremanak erraztea. Estatu kide batean emandako ebazpen bat beste Estatu batean aintzatetsia izateko, ebazpena eman duen organoaren eskuduntza, edo ebazpenaren funtsa edo mamia aztertu beharko balitz, prozesuak luzeegiak izango lirateke, eta Estatuaren arteko konfidantza zapuztuko litzateke. Beraz, egokia iruditzen zaigu Erreglamendu honek ebazpenen aintzatespenaren eta betearazpenaren eremuetan ezartzen duen arauketa.

IV. KONKLUSIOAK

Izatezko bikoteen ondarezko ondorioen eremuan, Europar Batasunak aurrera eraman duen komunitarizazio prozesuak, 2016/1104 Erreglamenduaren argitalpena ekarri du. Erreglamenduaren arau bateratuek aurre ezagutza eta segurtasun juridiko nabaria eskaintzen dizkiete nazioarteko elementuak dituzten bikoteei, hauen ondarezko harremanetan.

Nazioarteko elementuak dituzten izatezko bikoteek haien ondarea administratzerakoan zituzten arazoak (bai praktikoak eta baita juridikoak ere) gainditzeko ezinbestekoa izan da erregimen bateratu bat egitea.

Hala ere, ez da ahaztu behar Erreglamendu hau egitea ez dela erraza izan. Dakigunez, Erreglamendua burutzeko beharrezkoa izan da kooperazio indartuaren mekanismoa. Izan ere, Familia Zuzenbideak karga emozional nabaria du, historian zehar erlijioak eta kulturak baldintzatu dituztelarik familia eredu ezberdinak. Hori dela eta, EB-ko kide diren Estaturen artean ezberdintasun nabariak daude familia ereduari dagokienez, batzuetan izatezko bikoteak aitortzen ez direlarik. Egoera honen ondorio zuzena da Europar Batasunak aurrera eraman duen bateratze prozesua oztopatua izatea.

Badirudi momentuz oztopo horiek gaindiezinak direla, Europar Batasunak ezin dituelako Estatu kideak izatezko bikoteen instituzioa aitortzera behartu. Hala ere, kooperazio indartuaren mekanismoak emaitza positiboak ekarri ditu, 18 Estatuk baiezkota eman diotelarik kooperazio indartu honetan parte hartzeari. Gainera, gainontzeko Estatuak nahi duten momentuan batzeko aukera dute; beraz, kooperazio indartura batzeko ateak ez daude itxita.

Prozesuak jasandako oztopoak alde batera utziz, Erreglamenduak balorazio positiboa merezi du. Erreglamenduak egindako ekarpen nagusiena, gure aburuz, ezargarria den legearen eremuan borondate autonomiak duen zabaltasuna da. Hau da, izatezko bikoteek aukera dute haien ondarezko ondorioei ezargarria izango zaien legea aukeratzeko, edozein momentutan. Baina ez bakarrik hori, borondate autonomiak lehenetsuna du gainontzeko lotura puntuekiko. Espainiar sistemarekin alderatzen badugu, Erreglamenduak aurrerapauso ikaragarria dakar izatezko bikoteentzako, espainiar Kode Zibilak ez dituelako ezta aipatzen ere. Era berean, 2016/1103 Erreglamenduak ere abantaila bat suposatzen du ezkonduko bikoteen eraentza ekonomikoari ezargarri zaion legeri dagokionez, honek ere borondate autonomia lehenesten duelako, Kode Zibilak soilik ezkontideen lege pertsonal amankomunaren ezean aurreikusten duen bitartean.

Beraz, europar legegileak, 2016/1104 Erreglamenduaren bitartez, aurre egiten die geroz eta ohikoagoak diren familia eredu berriei, euren ondarezko eskubideak babestuz. Izan ere, Estatu kide askok, espainiar Estatua barne, ez dituzte behar bezala babesten izatezko bikoteen eskubideak.

Nahiz eta Europar Batasunetik egindako bateratze prozesua arrakastatsua izan, oraindik ere Estatu kideek lan ugaria egin behar dute Erreglamenduaren ezarpena guztientzat onuragarria izan dadin. Izan ere, beharrezkoa da Estatu kideek izatezko bikoteei ezargarria zaien legedi bateratuak egitea. Adibidez, espainiar Estatuan badaude izatezko bikoteen eraentza arautzen duten lurraldeak, baina Estatu osorako homogeneoa den eraentza baten faltak Erreglamenduaren ezarpena oztopatzen du.

Hau da, demagun Erreglamenduari jarraiki espainiar legedia dela aplikagarria. Espainian badira zenbait lurralde izatezko bikoteak arautu ez dituztenak, eta beraz, lurralde horietako izatezko bikoteek ez dute ezargarria den legerik izango.

Beraz, ikus daitekeenez, zenbait hutsune daude, eta horiek betetzea Estatu kideen esku dago. Espainiaren kasuan, legegileak, izatezko bikoteak errealitate bat direla, eta ezkonduetako bikoteak bezala, familia eredu bat osatzen dutela eta Estatuaren babesa merezi dutela aitortu behar du.

Laburbilduz, Europar Batasunak ahalegin handia egin du izatezko bikoteen ondarezko ondorioen eremuan eraentza bateratu bat eratzeko, eta nahiz eta prozesua luzea izan den, ahaleginak emaitza onuragarriak izan ditu 2016/1104 Erreglamenduaren argitalpenarekin. Erreglamenduak oinarrizko printzipioak diren aurre ezagutza eta segurtasun juridikoa bermatzen ditu, eta baita alderdien borondate autonomia ere, Erreglamenduaren aurretik, Familia Zuzenbidean murrizta izan dena. Era berean, nazioarteko bikoteen ondarezko eskubideak babesten ditu Erreglamenduak, Estatu mailako babes baten faltan.

BIBLIOGRAFIA

ALVAREZ LATA, N., “Las parejas de hecho: perspectiva jurisprudencial”, *Derecho Privado y Constitución*, núm. 12, 1998, pág. 17-18.

ESPIÑEIRA SOTO, I., “Pinceladas de Derecho Internacional Privado”, *Notarios y Registradores*, 22 de abril de 2010.

ESPIÑEIRA SOTO, I., “Resumen del Reglamento Europeo sobre Efectos Patrimoniales de las Uniones Registradas”, *Notarios y Registradores*, julio de 2016, pág. 5.

FERNÁNDEZ ROZAS, J.C./ SÁNCHEZ LORENZO, S., “*Derecho Internacional Privado*”, Cizur Menor (Navarra), Civitas, 2016, pág. 167-475.

MESA MARRERO, C., *Las Uniones de Hecho: Analisis de las Relaciones Económicas y sus Efectos*, Cizur Menor (Navarra), Aranzadi, 2006, pág. 77-81.

PEITEADO MARISCAL, P., “Competencia internacional por conexión en materia de régimen económico matrimonial y de efectos patrimoniales de las uniones registradas. Relación entre los Reglamentos UE 2201/2003, 650/2012, 1103/2016 y 1104/2016”, *Cuadernos de Derecho Transnacional*, vol. 9, marzo de 2017, pág. 302.

SÁNCHEZ-RUBIO GARCÍA, A., *Disolución y liquidación de los regímenes matrimoniales. Sociedad de gananciales y regímenes forales de comunidad*, Madrid, Reus, 2016, pág. 18.

VINAIXA MIQUEL, M., “La autonomía de la voluntad en los recientes Reglamentos UE en materia de regímenes económicos matrimoniales (2016/1103) y efectos patrimoniales de las uniones registradas (2016/1104)”, *InDret*, Homenaje a Núria Bouza, febrero de 2017, pág. 288-289.